

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 488/2014 Erabakia, irailaren 30koa, behin betiko onartzen duena Iruña Oka udalerriko ondasun higiezin gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugaketaren aldaketa partziala

Uztailaren 18ko 486/2014 Foru Aginduz, behin-behineko onartu zen ondasun higiezin gaineko zergaren pean dagoen Iruña Oka udalerriko hiri lurzorua mugaketaren aldaketa partziala, maiatzaren 17ko 247/2011 Foru Aginduaren bidez onartutako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren arabera egina.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duenak, bere 4. paragrafoko 11. artikuluan 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, baina epe hori igaro ondoren Iruña Okako Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea, honekin batera doazen 1: 500 eskalako planoen arabera, Iruña Oka udalerrirako egin den ondasun higiezin gaineko zergaren pean dagoen hiri lurzorua mugaketaren aldaketa partziala, maiatzaren 17ko 247/2011 Foru Aginduaren bidez onartutako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntuala betez.

Bigarrena. Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezin gaineko zergarenak, bere 2. artikuluko b) idatz zatiko 1., 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo hiri ondasun higiezin hartutako lurzoruei dagokienez.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 eguneko interesduneko egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten. Iruña Okako udaletxeko bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baita uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duenak, bere 11. artikuluan 5. paragrafoan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 30a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRES GUERRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO